II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Obra osagarriek ukitutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea Basaurin El Kalero eta Basozelai auzoen arteko irisgarritasuna hobetzea eta Bidasoa ibaia eta Karmelo Torre 12-20 artekoa. Eraginpeko finkak okupatu aurreko aktaren deialdia eta, hala badagokio, okupazio-akta.

2026ko urtarrilaren 30ean, Basauriko alkateak 378/2026 Dekretua eman du, Basauriko El Kalero eta Basozelai auzoen arteko irisgarritasuna hobetzeko, Bidasoa ibaia eta Karmelo Torre 12-20 arteko irisgarritasuna hobetzeko obra osagarriek ukitutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari dagokionez, eraginpeko finkak okupatu aurreko aktaren eta, hala badagokio, okupazio-aktaren deialdiari dagokionez. Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularren jabekideen erkidegoetako lehendakariei dei egitea, 2026.eko martxoaren 30ean, astelehena, 13:30ean, udaletxera ager daitezen, osoko bilkuren aretoan (udaletxeko 1. solairua), behar izanez gero, lursailera bertara lekualdatzeko, eta eraginpeko finka okupatu aurreko akta eta, hala badagokio, okupazio-akta egiteko.

Elementua	Azalera (m^2)	Jabeduna
1. finka	476	Ezezaguna
2. finka	618	Karmelo Torre kaleko J. E. (119,09 m^2)
		Karmelo Torre 23 kaleko J. E. (Karmelo Torre 23 Bis barne) (166,86 m^2)
		Karmelo Torre 19 J. E. (179,22 m^2)
		Karmelo Torre 21 J. E. (134,29 m^2)
		Bilboko gotzaindegia (Karmelo Torre 15 El Kaleroko eleiza) (18,54 m^2)

Onuraduna: Basauriko Udala.

Ekitaldi horretara jabekideen erkidegoetako lehendakariek joan beharko dute, zuzenean edo beren izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta, NANa dutela, eta beren titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Egoki iritziz gero, perituak eta notarioa ere eraman ahal izango dituzte, beren kontura.

Bigarrena: Erabaki hau interesatuei jakinaraziko zaie eta, laburbilduta, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da probintziako egunkari zabalduenetako batean eta udal webgunean.

Hirugarrena: Interesatuek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte udal honetan, aurretiko aktak egiteko jarritako egunera arte, lehenbailehen okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda egiterakoan izan daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Basaurin, 2026ko urtarrilaren 30ean.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

eek: BAO-2026a026-(II-524)